



# **Erasmus eta atzerriko egonaldien arautegia eta gida**

## 1. Aukeratuak izateko betebeharreko baldintzak:

### 2.1 Ingeles maila hau egiaztatu:

- **Cambridge First Certificate** edo **IELTS 5.0** edo **TOEFL 500** maila erakutsi behar duzu. Bereziki kontuan izango dira azken bi urtetan eskuratutako agiriak.
- Horrelako ziurtagiririk ez baduzu, HUHEZIn **hizkuntza azterketa** egingo zaizu maila hori duzula egiaztatzeko.

\*Europako beste hizkuntzaren batean maila ona baduzu eta atzerrian egonaldirik egin nahi baduzu, jarri mesedez harremanetan Nazioarteko Arduradunarekin.

### 2.2 Espediente akademiko garbia eskaera eta egonaldia egiterakoan

- **Eskaera egiterakoan**, espedienteko materia guztiak gaindituta.
- **Egonaldia izango den ikasturtea hastean**, materia guztiak gaindituta.

Baldintza hauek ez badituzu betetzen, **eskaera egin dezakezu** eta zure kasu pertsonala aztertuko da, nahiz eta lehentasuna ez izan.

## 2. Prozedura

**2.1** Udazkenean **bilera informatiboak** egiten dira Fakultatean. Bilera hauen datak eta ordutegiak postaz bidaltzen zaizkizue ikasle guztiei eta Nazioarteko oholean ere jartzen dira. Bilera honetan atzerrian ikasteko prozedura azaltzen da eta dokumentazioaren berri ematen da. Eskaera Orria Fakultateko webgunean eta Moodle-en (**Ikasle gunean**) eskuragarri dago.

**2.2** Zure **eskaera orria** eta hizkuntza gaitasun agiria **entregatu** beharko diozu Nazioarteko Harremanen Buruari. Gustukoen dituzun aukeren arabera ordenatu behar duzu eskaera, eta kontuan izan ikasturteko deialdi bakarra egoten dela. Apirila aldera, behar duenak Hizkuntza Frogak egiten ditu.

**2.3 Ikasleen aukeraketa.** Eskaera guztiak aztertu ondoren, HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak atzerrian egonaldia egingo duten ikasleak aukeratzen ditu irizpide hauek kontuan izanda:

**Espediente akademikoaren** arabera egingo da esleipena. Hau da, eskaera egin dutenen zerrenda espediente akademikoaren arabera zerrendatuko da, eta ordena hau errespetatuz esleipenak egingo dira, kontuan izanda ibilbidea, ikasleak lehenetsi duen unibertsitatea eta seihilekoa.

**Seihileko bakoitzean bi pertsona** joan daitezke unibertsitate bakoitzera. Beraz, zerrendan behera joan ahala, gerta daiteke destinoak esleituta egotea, eta ikasle bati esleitzea unibertsitate eta seihileko bat berak lehenetsi ez duena. Destino hori onartu egin beharko du, baina ikasleen arteko destino aldaketak posible dira esleipenak egin eta hurrengo bost egunetako epean.

Destino bat esleitzeak esan nahi du eskaera egingo dela (**nominazioa**) atzerriko unibertsitateara, baina onartua izateko azken hitza atzerriko unibertsitateak du, berak onartu behar du ikaslea.

**Aukeratua izan bazara**, Nazioarteko Burua berehala jarriko da zurekin harremanetan atzerriko ikasketen inguruan orientatzeko eta atzerriko unibertsitateko eskaera orria [*Application Form*] bete eta bidaltzeko. Ostaturako eskaera orria ere une honetan egiten da.

**2.4 Atzerrian eskaera egin.** Azken hitza atzerriko unibertsitateak du, bertan izan behar zara onartua.

Atzerriko unibertsitateak dokumentazioa bidaliko dizu posta elektronikoz (oso inportantea da eskaeran posta ondo idaztea). Posible da kurtsoa hasi baino hilabete lehenago arte dokumentaziorik ez jasotzea.

Atzerriko egonaldian zehar proiektu berezirik egin behar baduzu HUHEZIKo zure ikasketa buruak eta nazioarteko buruak orientatuko zaituzte.

Atzerriko Unibertsitatean onartzen bazaituzte, Ikaste Kontratua edo **Learning Agreement** dokumentua sinatzen da. Kontratu honetan atzerrian egin behar dituzun kurtso, ikasgai edo moduluak agertzen dira. Ezinbestekoa da bertan zehazten dena betetzea itzultzean kreditu aitormena egin ahal izateko.

Joan aurretik Erasmus kontratua sinatu beharko duzu Mondragon Unibertsitateko Errektoretzan. Bertatik deituko zaituzte eta prestatu behar duzun dokumentazioa hau da:

- NAN edo pasaportearen fotokopia.
- Argazkia, nortasun-agiri tamainakoa.
- Zure helbide arrunta.
- Bekak ordaintzeko kontu korrontearen zenbakia
- Familiarren (guraso eta anaia-arrebak) izen eta NAN zenbakiak.
- Europako Osasun Txartelaren fotokopia.
- Erasmus egonaldia egin behar den ikasturteko matrikula-agiria. Atzerrira joaten zaretenean ez baduzue, bueltan etortzerakoan entregatu behar duzue.

## 2.5 Bidaia

Lehenengo lauhilabetean ateratzen direnak **abuztuaren erdialdera edo irailaren** hasieran bidaiatzen dute.

Bigarren lauhilabetean doazenak **urtarrilaren hasieran edo otsailaren** hasieran bidaiatzen dute.

Destinoko unibertsitatean dagokion kurtsoetan matrikula egin beharko duzu Nazioarteko Harremanen sailak adieraziko dizun eran, baina ez duzu matrikula tasarik ordainduko han. Hala ere helburuko unibertsitateak diru-kantitate txiki bat eskatu ahal izango dizu aseguruaren edo hainbat materialen erabileraren gastuei aurre egiteko.

### 3. Matrikulazioa HUHEZIn

- Mondragon Unibertsitateko ikaslea izaten jarraituko duzu eta ohiko matrikula tasak ordaindu beharko dituzu hemen.
- Lehenengo lauhilabetean ateratzen bazara HUHEZIn matrikula Internet bidez egin beharko duzu (Auto-matrikulazioa) edo zure familiar batek egin beharko dizu. Matrikula epeak irailaren bigarren hamabostaldian izaten dira, eta irailaren hasieran bidaliko zaizkizu matrikula-datak posta elektronikoz Idazkaritza Akademikotik.
- Automatrikulazioarekin arazorik baduzu zuzendu helbide honetara: [Idazkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:Idazkaritza.huhezi@mondragon.edu)

### 4. Kreditu aitormena

- Egonaldian zehar ebaluazio irizpideak atzerriko unibertsitatearenak izango dira, beraiek jarriko dute nota. Irizpide horiek argiak izaten dira eta kurtsoen dokumentazioan agertzen dira.
- Egonaldia bukatzean noten ziurtagiria, ***Transcript of Records***, emango dizute atzerriko fakultatean. **Zure ardura da dokumentu hori HUHEZiko Nazioarteko Buruari entregatzea edo entregatuko zaiola ziurtatzea.**
- Atzerriko unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta ikasleak sinatzen duten Ikasketa kontratua edo *Learning Agreement* dokumentuko kredituak gainditzen badituzu, HUHEZiko lauhilabeteko horretako kredituak aitortuko zaizkizu.
- Ikasketa Kontratuko ikasgaiak edo moduluak aldatu beharra gertatu daiteke atzerrian ikasi beharreko ikasgaien irakaskuntzarekin erlazionatutako ustekabekoen ondorioz (ordutegi bateraezinak, ikasgaia ez delako martxan jarri...). Kasu honetan beti Nazioarteko Buruarekin harremanetan jarri behar zara, aldaketaren oniritzia jasotzeko.
- HUHEZIn aitortuko zaizkizun ikasgaietan izango duzun nota, atzerrian izandako nota bera izango da ikasgaika egiten bada aitormena, edo atzerriko nota guztien media, aitormena globala bada. ECTS notak

HUHEZIKo noten sistemara aldatuko dira aurrez Batzorde Akademikoak onartuta duen eran.

*ECTS notak eta HUHEZIKo noten arteko konbergentzia*

ECTS nota	HUHEZIKo nota
A -Excellent	9,5
B- Very good	8,5
C- Good	7,5
D- Satisfactory	6,5
E- Sufficient	5,5
FX- Marginal fail	3,5
F- Fail	1,5

- Egonaldian gaintitzen ez dituzun kredituak, itzultzean HUHEZIn gaintitu beharko dituzu, zure ikasketen koordinatzaileak adieraziko dizun eran.
- Kreditu gehigarriak egiten badituzu atzerrian, kreditu horien aitormena eskatu dezakezu HUHEZIn Aukera Askeko kreditu gisa.
- Itzultzean Fakultateak erraztu egingo dizu klaseko dinamiketara murgiltzea eta zuk ere ahalegin berdina egin beharko duzu. HUHEZIn itzultzean irakurketa batzuk egin behar izatea gertatu daiteke, ikasgairen bateko dinamikan murgildu ahal izateko.

## 5. Finantziarioa, beka

- **Atzerrian ez duzu matrikula** tasarik ordaindu beharko, eta **Mondragon Unibertsitateko kuotak berdin** ordaintzen jarraituko duzu.
- Zure kontura izango dira bidaia, pisua, janaria... Hala ere helburuko unibertsitateak diru-kantitate txiki bat eskatu ahal izango dizu aseguruaren edo hainbat materialen erabileraren gastuei aurre egiteko.

## Bekak

Beken egoera aldatu egin zen 2014-2015 ikasturtean eta ematen du egonkortzen ari dela beken egoera, baina hau ezin dugu ziurtatu.

Laburbilduz, **atzerriko edozein destinora joateko 330€ diru-laguntza dago hileroko (Europa, Latinoamerika edo munduko beste edozein herrialdera joateko)**. Kantitate hau osatzen da 3 beken bidez, osagarriak direnak (erasmus.es, SEPIE edo Jaurlaritzakoa). [Kutxabankek ere 400 €ko](#) dirulaguntza banatu du seihileko bakoitzean.

Guzti honen berri zehatza nominatuak izan ondorengo bilera informatiboetan eskaintzen da.

## 6. Aseguruak

- Europar mediku-estaldura edukitzeko “Europako Osasun Txartela” atera behar duzue Gizarte Segurantzaren (CAISS). Informazio gehiago 900 166565 telefonoan edo [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es) helbidean.
- Atzerrian zaudela medikura joan behar bazara telefono honetara deitu behar duzu **0034 901166565, 0034 944284500**. Bertan argituko dizute egin beharrekoa.
- Honetaz aparte, Mondragon Unibertsitateak Erasmus egonaldietara ateratzen diren ikasle guztiek bi aseguru hauek ere egin behar dituzte (Istripu-asegurua eta bidai aseguruak). Unibertsitateak egiten ditu eta **gero bankutik pasatzen dizkio ikasle bakoitzari** [Polizak eranskinean daude] . Dokumentu honen amaieran dituzue bi poliza hauen kopiak.
  - Seguruen inguruko zalantzak argitzeko deitu Mondragon Unibertsitateko **telefono honetara 0034 943712905** edo idatzi posta honetara: [aigartua@mondragon.edu](mailto:aigartua@mondragon.edu)
  - Programatuta (egonaldi akademikoa) baino beranduago etorri behar bazarete oso inportantea da hori jakinaraztea helbide honetara: [aigartua@mondragon.edu](mailto:aigartua@mondragon.edu)

## 7. Amaieran ekarri beharreko dokumentazioa

**HUHEZIKO IAZ (Ikaslearen Arreta Zerbitzuan) entregatzeko, Txema Egañaren izenean: (IAZko ordutegia: 8:30 - 12:30 / 14:30 - 18:00 )**

1. **Transcript of records.** Kasu batzuetan zuei ematen dizkizute eta beste batzuetan plataforman jartzen dizkizute. Badira kasu batzuk niri zuzenean bidaltzen dizkidatenak, horrela bada mesedez niri abisatu emailez. Zuen ardura da hau lotuta eta bideratuta ixtea.
2. **Certificate of Attendance (originala).** Baita ere deitzen da Certificate End of Studies, gauza berdina dira. Beherago duzue txantilo bat behar izanez gero.
3. **Learning Agreement.** Joan aurretik emango zaizue dokumentua, zuek eta MUK sinatuko duzuen, eta amaieran ekarri behar duzue destinoko unibertsitateko sinadurarekin.

**Txema Egañari emailez bidali ([tegana@mondragon.edu](mailto:tegana@mondragon.edu))**

1. **Zuen idatzizko balorazioa.** Zuen egonaldiaren inguruan egiten duzuen balorazioa datorren urteko ikasleek izan dezaten eta guk baloratu dezagun destino horren interesa. Txantiloia postaz bidaliko zaizue eta Mudlen ere dago.

**Mondragon Unibertsitateko Errektoretzara, Arrasaten.**

1. **Certificate of Attendance (originala),** beraz bi kopia orijinal beharko dituzue.
2. **Learning Agreementaren kopia bat,** fotokopia bat.
3. Joan aurretik eman zizueten inkesta beteta, Erasmus programarena.



## 8. Ostatua

Normalean HUHEZIK aukeratutako destinoetan ostatua unibertsitateen egoitzetan izaten da, eta ostatu-eskaera kurtsoaren eskaera orokorrarekin batera egiten da. Logelen salneurriak hileko 300-400€ artekoak izaten dira leku gehienetan.

## 9. Motibazioa eta bestelakoak

Egonaldi hau zure proiektu pertsonal bihurtu behar duzu. Zure inplikazioa ezinbestekoa da horrelako proiektu konplexu bat aurrera ateratzeko. Izan ere, egun oso onak izango dituzu, baina zailtasunak ere bai.

Zoazen herrialdeko unibertsitateaz, kulturaz, hizkuntzez eta hezkuntza sistemaz janztea gomendatzen dizugu, bidaia girotzeko eta egonaldiari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Programa hauek kalitatezko hezkuntza sistemak dituzten herrialdeetako unibertsitateetan eskaintzen dira, PISA txostenetan ikus dezakezun bezala.

### **Txema Egaña**

Nazioarteko Harremanen Arduraduna

HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea

Tel. 943 714157 Luz. 5206 edo 600047638

Faxa. 943 714032

[tegana@mondragon.edu](mailto:tegana@mondragon.edu)

**Egonaldian zehar izango dituzuen aseguruen polizak dira ondorengoak. Kargua HUHEZIk pasako dizue.**



**SEGURO COLECTIVO DE ACCIDENTES - CONDICIONES PARTICULARES**

Póliza No.	Suplem. Número	Sucursal	Asesor
110710000624	0	1001-MEDIADORES BIZKAIA	14 -3 -AON GIL Y CARVAJAL S.A. C
<b>Tomador del Seguro</b>			
MONDRAGON UNIBERTSIT LORAMENDI 4, . 20500-ARRASATE/MONDRAGON (GIPUZKOA)			DNI / CIF : F20560991 TFNO: 943712185
<b>Duración del Contrato</b>			<b>Renovación</b>
Desde las 00:00 horas del 07/08/2007 hasta las 00:00 horas del 01/07/2008.			Temporal
<b>Desglose de la Prima</b>			
Forma de pago	Domicilio de pago	Bco.	Suc. Dc. Cuenta
ANUAL Primer recibo: Recibos sucesivos: Recargo fraccionamiento:	Vencimiento: 07/08/2007 Vencimientos:		
	0,00€		

**ASEGURADOS**

F20560991, MONDRAGON UNIBERTSIT



**IDENTIFICACIÓN Y DESCRIPCIÓN DEL RIESGO**

**DESCRIPCIÓN:**

Estudiantes de Mondragón Unibertsitatea que van a realizar estudios en Europa (programa Erasmus).  
ACTIVIDAD: 103000  
NUMERO DE ASEGURADOS: 33  
CAPITALES Y COBERTURAS SEMEJANTES PARA TODOS LOS ASEGURADOS: SI  
AMBITO DE COBERTURA: 24 horas ✓

**GARANTÍAS Y CAPITALES POR PERSONA**

FALLECIMIENTO POR ACCIDENTE . . . . . 30.000,00 ✓ INVALIDEZ PERMANENTE POR ACCIDENTE . . . 60.000,00 ✓  
ASISTENCIA SANITARIA . . . . . ILIMITADA ✓

Seguros Lagun Aro: inscrita en el Registro Mercantil de Vizcaya al Tomo BI-186 de Sociedades, Folio 1, Hoja 16.778, Inscripción 1.ª - C.I.F.: A-30079224

Seguros Lagun Aro Vida: inscrita en el Registro Mercantil de Vizcaya al Tomo BI-186 de Sociedades, Folio 42, Hoja 16.779, Inscripción 1.ª - C.I.F.: A-20182705

EL TOMADOR DEL SEGURO  
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA, KOOP. E.

Nº PÓLIZA  
110710000624

SEGUROS LAGUN ARO, S.A.  
**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURIAK de 3  
Sucursal Mediadores de GIPUZKOA  
Egia, 3  
20012 Donostia

**LAGUNTEL 902 38 08 38**

www.segurolagunaro.com



**MAPFRE ASISTENCIA**

**PÓLIZA DE SEGURO DE ASISTENCIA  
CONDICIONES PARTICULARES**

COMPañIA INTERNACIONAL DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.  
Domicilio Social: SOR ANGE LA DE LA CRUZ, 6, 7º. TF.: 902-14 02 14  
28020 MADRID - C.I.F.: A/79194148

TOMADOR DEL SEGURO: MONDRAGON UNIBERTSITATEA, S. COOP.		NÚMERO DE PÓLIZA	SPTO
DOMICILIO: CALLE ORAMENDI 4		109006489159	2
LOCALIDAD: ARRASATE O MONDRAGON	DP: 20500	PROVINCIA: GUIPUZKOA	PRIMA NETA UNITARIA
CARÁCTER CON EL QUE ACTÚA: TOMADOR		D.N.I. o N.I.F. F20560991	NÚMERO DE ASEG. según altas

VIGENCIA INICIAL DE LA PÓLIZA		DURACIÓN PÓLIZA: RENOVABLE	IMPORTE DEL SEGURO	
EFECTO DESDE LAS 00 HORAS	VENCIMIENTO HASTA LAS 00 HORAS	FORMA DE PAGO: MEDIADOR	P.NETA TOTAL	0.00
14/09/2007	14/09/2008	PERIODICIDAD PAGO: ANUAL	CLEA	0.00
DOMICILIO DE PAGOS DE RECIBOS			I.P.S	0.00
AON GIL Y CARVAJAL, CORRED SEGUROS CALLE MEJIA LEQUERICA 0008 C.P.28004 MADRID MADRID			CONSORCIO	0.00
			TOTAL	0.00

RAMO MULTIRAMO TELÉFONO ASISTENCIA Nacional: 902196030 Internacional: 34915811823

ÁMBITO TERRITORIAL EUROPA Y PAISES RIBERENOS MEDITERRANEO

PRODUCTO/CÓDIGO 490 / SEGURVAJE - PROYECTO/CARTERA INTERVENCIÓN 0200047

FRANQUICIA VEHICULO	DATOS VEHICULO
FRANQUICIA PERSONAS 15 KM	DATOS ASEGURADO

**GARANTIAS INCLUIDAS**

**COBERTURA DE ASISTENCIA A PERSONAS**

- 1 TRANSPORTE O REPATRIACIÓN SANITARIA
- 2 TRANSPORTE O REPATRIACIÓN DE ACOMPAÑANTES - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO - MAXIMO 6 PERSONAS
- 3 ACOMPAÑAMIENTO ASEGURADOS MENORES O DISMINUIDOS - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO
- 4 TRANSPORTE O REPATRIACIÓN DEL ASEGURADO FALLECIDO
- 5 DESPLAZAMIENTO DE UNA PERSONA - HOSPITALIZACIÓN ASEGURADO SUPERIOR A 5 DIAS - EN CASO DE FALLECIMIENTO DEL ASEGURADO
- 6 TRANSPORTE O REPATRIACIÓN SANITARIA ACOMPAÑANTE ASEGURADO FALLECIDO - MAXIMO 14 DIAS
- 7 ESTANCIA DE UNA PERSONA POR ENFERMEDAD/ACCIDENTE DE ASEGURADO - HASTA 42 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS (LIMITE 420' EUROS)
- 8 PROLONGACIÓN ESTANCIA POR ENFERMEDAD O ACCIDENTE - HASTA 42 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS (LIMITE 420' EUROS)
- 9 DESPLAZAMIENTO URGENTE POR FALLECIMIENTO FAMILIAR - HASTA SEGUNDO GRADO - POR FALLECIMIENTO
- 10 DESPLAZAMIENTO URGENTE POR SINIESTRO EN EL HOGAR O LOCAL
- 11 ENVÍO DE MEDICAMENTOS
- 12 TRANSMISIÓN MENSAJES URGENTES
- 13 INFORMACIÓN TURÍSTICA GENERAL PREVIA AL INICIO DEL VIAJE
- 14 ADELANTOS DE FONDOS EN EL EXTRANJERO (LIMITE 1500' EUROS)
- 15 INDEMNIZACIÓN POR PERDIDA DE CLASES - HASTA 24 EUROS/DIA - MAXIMO 25 DIAS - HOSPITALIZACIÓN ASEGURADO SUPERIOR A 5 DIAS (LIMITE 600' EUROS)

**COBERTURA POR DEMORA**

- 16 DEMORA EN LA SALIDA DEL MEDIO DE TRANSPORTE CONTRATADO - HASTA 30 EUROS/TRAMO SUPERIOR 6 HORAS (LIMITE 120' EUROS)
- 17 DEMORA POR OVER BOOKING (LIMITE 30' EUROS)

**COBERTURA DE EQUIPAJES**

- 18 INDEMNIZACIÓN POR PERDIDA, ROBO O DESTRUCCIÓN EQUIPAJES FACTURADOS - CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA (LIMITE 90' EUROS)
- 19 INDEMNIZACIÓN POR DEMORA DE EQUIPAJE FACTURADO - MINIMO 6 HORAS - FACTURAS ORIGINALES Y CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA (LIMITE 90' EUROS)
- 20 LOCALIZACIÓN Y ENVÍO DE EQUIPAJES

**COBERTURA DE ACCIDENTES PERSONALES**

- 21 INDEMNIZACIÓN POR MUERTE LAS 24 HORAS (LIMITE 6000' EUROS)
- 22 INDEMNIZACIÓN POR INVALIDEZ PERMANENTE SEGUN BAREMO LAS 24 HORAS (LIMITE 6000' EUROS)

**COBERTURA DE RESPONSABILIDAD CIVIL**

- 23 RESPONSABILIDAD CIVIL PRIVADA (LIMITE 60000' EUROS)

Son de aplicación las Condiciones Generales MOD. SV001 ABR-05 que se adjuntan.

Mediante la firma del presente documento, el Tomador del Seguro acepta expresamente las cláusulas limitativas de los derechos del Asegurado, que se recogen en las Condiciones Generales de la Póliza que se adjuntan.

El Tomador del Seguro



MONDRAGON UNIBERTSITATEA, KOOP E

En MADRID a 20 de NOVIEMBRE de 2007

MAPFRE ASISTENCIA, S. A.  
P.P.



*[Handwritten signature]*

COPIA TOMADOR

Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, Tomo 9.886, General 1484, Sección 3ª del Libro de Sociedades, Folio nº 89760-2, Inscripción 1ª - C.I.F. A-79194148